AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

50

AGINDUA, 2013eko abenduaren 18koa, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailean hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdia ebazteko dena.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 46.2.c) artikuluan eta Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailean hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdia iragartzen duen Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2013ko urriaren 16ko Aginduaren laugarren oinarrian xedatutakoaren arabera (2013ko azaroaren 6ko EHAA, 211. zk.), honako hau,

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Josu Mirena De Zubero Olaechea jauna izendatzea lurralde ordezkari Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Laneko Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzan (kodea: 511786, dotazio-zenbakia: 9, destino osagarria 29).

Bigarrena.– Izendapen honek 2013ko abenduaren 18tik aurrera izango ditu ekonomia- eta administrazio-ondorioak.

Hirugarrena.– Agindu honek administrazio-bideari amaiera ematen dio, eta, beraren aurka, berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal zaio delako agindua eman duen organoari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik; edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, agindua EHAAn argitaratu eta biharamunetik.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko abenduaren 18a.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua,
JUAN MARÍA ABURTO RIQUE.